

## 81. FITXA. ARABA – Udalerri barruko garraioa finantzatzeko dirulaguntzak

**Nori zuzenduta:** Arabako Lurraldeko Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriak, udalerri barruko garraioaren zerbitzua ematen badute.

**Sartzeko esteka:** [Arabako Foru Aldundiaren Egoitza elektronikoa - egoitza](#)

**Erreferentziazko arauak:** [53/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 30koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerri barruko garraioa finantzatzeko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia](#)

**Eremuak:** Garraio publikoa

**Zenbatekoa:** 55.000 €

**Aurkezteko epea:** 2025/03/12

### Laburpena

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak **Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerri bakoitzaren lurralde eremuan soilik egiten den barruko garraioa finantzatzeko** aurrekontuko kredituen kontura emango dituen dirulaguntzak emateko bete behar diren betekizunak, betebeharrak eta prozedura ezartzea.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz lagundu ahal izango dira Arabako udalerri horiek beren lurraldeko hainbat guneren artean sustatzen eta kudeatzen dituzten **garraio publikoko ekintzak**, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.18) artikuluan esleitutako eskumen propiotik eratorritzen direnak.

Zerbitzua **udalarena** izan behar da, zerbitzua erakunde publiko batek zein pribatu batek eman.

Zerbitzua erakunde publiko batek ematen duela joko da udalerriak erabat edo zati handi bat arautu eta finantzatzen badu.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede den jarduera **2025eko ekitaldian** hasi behar da gauzatzen, eta **2025eko abenduaren 31rako** amaitu beharko da. Horregatik, zerbitzua ematetik eratorritako obligazio onartuak 2025eko aurrekontu ekitaldiari egotziko zaizkio.

## Laguntzen zenbatekoa

Garraio linea bakoitzeko gehienez **6.000 euroko** dirulaguntza emango da urtean, eta udal bakoitzeko gehienez **10.000 eurokoa urtean**.